

2.

EUSKARALDIA.

aek



HELBURU NAGUSIAK:

- Ikasleei 2020ko Euskaraldia zer den ezagutzera ematea.
- Euskararekiko jarreran eta motibazioan positiboki eragitea.

HELBURU DIDAKTIKOAK:

- Datak zuzen nola idazten diren jabetzea.

ATAZAUURREA: Zer dakiten galdetu eta ataza aurkeztu

- Ikasleei galdetu ea zer dakiten Euskaraldiari buruz, zer gogoratzen duten beren bizipenez. Horretarako, galdera batzuk dituzue laguntza gisa (**4. or.**).
- Ikusi Euskaraldiaren lehen edizioa iruditan jasotzen duen [bideoa](#).
- Horrez gain, hemen dituzu lehen ediziorako prestatu ziren hainbat esketx. Ikusi eta, ondoren, komentatu:

[Okindegian](#) [Ebakia](#) [Gurasoak](#) [Bulegoan](#) [Ikasleak](#)

Bideoetan ikusitakoa ahoz baloratuko duzue: ea gustatu zaizkizuen, identifikaturik sentitu zareten...

Oharra: informazio gehiago eskuratzeko, jo hona: <https://euskaraldia.eus/>

A ataza: Ezagutu Euskaraldiaren nondik norako guztiak bideoa ikusi eta komentatu

- Bideoa ikusi ondoren, galderei erantzungo diete, Euskaraldiaren ezaugarri nagusiak identifikatzeko (**4. or.**).

Oharra: jo hona, besteak beste, izena emateko: <https://euskaraldia.eus/>

B ataza: Kanta entzun, hutsuneak bete eta egileak ezagutu

- Euskaraldiko kantaren izenburuari erreparatuko diogu: 24/7. "Zer dela eta izenburu hori?" galdetuko diegu ikasleei. Errondatxoa egingo dugu ea asmatzen duten. Erantzuna: *24 orduz, 7 egunetan euskaraz; hau da, egunero eta une guztietan.*
- Euskaraldiko kanta eta egileak aurkeztu, ezagutzen ote dituzten galdetu, eta kanta entzungo dugu.
- Kanta gustatu zaien galdetuko diegu.
- Letra banatu eta berriro entzungo dugu, hutsuneak betetzeko (**5. or.**).
- Kantaren egileen argazkiak ikusi eta aurkezpenekin lotu beharko dituzte (**6. or.**).
- Euskal musika gustuko badute, edota kantari horien beste kantaren bat ezagutu nahi badute, www.badok.eus gunean sartzera gonbidatuko ditugu.



C ataza: Elkarrizketa irakurri eta ulertu

- Ataza aurkeztu, elkarrizketa banatu eta egitekoa azalduko dugu (**6.-8. or.**).
- Bakarka, galderak eta erantzunak lotuko ditugu.
- Talde handian zuzenduko dugu (**ikus 10. or.**).
- Talde handian irakurritakoa komentatuko dugu eta zalantzak argituko ditugu.

D ataza: Datak nola idatzi behar ditugu?

- Berrero ere aurtengo Euskaraldia noiz hasi eta amaitzen den idatziko dugu arbelean (ikasle bati proposatuko diogu idazteko) Gogoratu: **azaroaren 20tik abenduaren 4ra.**
- Talde handian, data ondo idatzita dagoen komentatuko dugu.
- Bide batez, *Ohiko akatsak* izeneko fitxa banatuko diegu, eta bertako formak zuzenduko ditugu (guztiak dira akastunak) (**9. or.**).
- Behar izanez gero, azaldu araua.

Oharra: *Euskal gramatika osoa* liburuan ere badaude azalpena eta ariketaren erantzunak (**835.-838 or.**).



Atazaostea: Herriko ekimenen berri eman

- Amaitzeko, [herriko ekimenen](#) berri emango dugu, gure hitzetan. Horretarako, herrian (edo eskualdean) egin diren aurkezpenen irudiak, albisteak eta bideoak erabiliko ditugu.

Material osagarria:

- AEK-ko ikasle baten testigantza duzue bideo honetan: [Joseba Attard](#); bertan, bere esperientzia kontatzen du. Ikusi eta komentatu talde handian: bideoak transmititu dizuna hitz bakar batekin azaldu beharko bazenu, zein hitz aukeratuko zenuke? Zer edo zerk harritu zaitu? Besterik?

EUSKARALDIA



Ikaslearentzako orriak



dek

1. Gogoratzen duzu lehenengo Euskaraldia?
2. Nola bizi izan zenuen zuk? Zer gogoratzen duzu?
3. Badakizu orain bigarren Euskaraldia datorkigula?
4. Zer dakizu Euskaraldiaren bigarren edizio horren inguruan?
5.



Ikusi Euskaraldiaren lehen edizioa iruditan jasotzen duen bideoa. Orain, aurreko edizioaren hainbat esketx ere ikusiko dituzu. Erantzun galderei.

1. Gustatu zaizkizu?
2. Identifikatuta sentitu zara agertu diren pertsonaiekin? Norekin? Zergatik?
3. Baduzu pasadizorik-edo kontatzeko?
4.



Ongi etorri Euskaraldira bideoa ikusi eta gero, honako galdera hauei erantzungo diezu.

1. Noiz hasiko da bigarren Euskaraldia? Noiz amaitu?
2. *Belarriprest* edo *Ahobizi* izateak zer dakar? Zein jarrera (konpromiso) hartu behar dugu ba-koitzaren kasuan?
3. Zein da aurtengo berrikuntza?
4. Belarriprest izateko "prest"? Izena eman al duzu? Eman nahiko zenuke? Badakizu nola egiten den?



Informazio gehiago eskuratzeko, jo hona: <https://euskaraldia.eus/>



Bete hutsuneak.



24/7

Gehiago... _____ ... Gehiagotan.
 Prest al zara? esan, esan... esan esan
 Prest al zara? esan... bai!
 Zaindu maite _____ hori... zaindu.. zain gu... maite duzuna?
 Armairutik atera armairua bera! Atera, ba! Atera!
 Bagera – ezer ez da berdin (e)ta segi aurrera
 Bagare – ez da _____ baina halere...
 Bagira – ez geratu begira
 Bagire – ez esan ez dela posible
 Zenbat gara? Ni, bat
 24 / 7
 Zenbat gara? Gu, bat
 Asko ta ez aski
 Prest _____ esan, esan
 Prest bazara, esan
 Prest bazara esan, esan
 "Jalgi hadi plazara, jalgi hadi
 Han bat eta han bi.
 Hainbat... eta handi!
 Jalgi hadi plazera, adi adi
 Batera... bat bera..."
 Bagera – mugetan preso _____ ez dadila gera
 Bagare – aspaldi belarriak ahoen zain daude
 Bagira – ahoak belarrien bila dira
 Bagire – gorputz _____ ez da bizitzeko libre
 Zenbat gara? Ni, bat
 24 / 7
 Zenbat gara? Gu, bat
 Asko (e)ta ez _____

Ikaslearentzako orriak



dek



Kantaren egileak

Lotu argazkiak eta deskribapenak:



Ikaslearentzako orriak



A



SKABIDEAN

2012. urtean Iruñean sorturiko ska, reggae eta rocksteady taldea da. 200 kontzertu baino gehiago eman ditu Euskal Herriko geografia osoan zehar. 2019. urtean, taldea berritu eta hiru emakumezko abeslariarekin osatu zen. Hortaz, egun, taldeak 11 kide ditu.

DISKOGRAFIA:

Maketa (2015)
Skabidean (2017)
Bideak darrai (2018)
Maravillas Sozial Club (2018)
Izaera (2020)

Gustuko duzu euskal musika?
Bada, jo hona:
www.badok.eus

Iturria: <https://eu.wikipedia.org>



B



SUSTRAI COLINA AKORDARREMENTERIA

(Urruña, 1982)

bertsolaria, bertso-irakaslea eta kazetaria da. Zuzenbideko lizentzia du. Ikastolan egin zituen lehen ikasketak. Pilotazale amorratua. Egun, bertsolaritzan dabil: bertsolaria izateaz gain, bertso-irakaslea ere bada. Gainera, *Berria* egunkarian eta *Argia* aldizkarian idazten du. Talde batzuentzat abestien hitzak ere egin ditu.

BERTSOLARITZAN IBILBIDEA:

2000n, Iparraldeko Bertsolari Gazteen txapelketa irabazi zuen, eta, nagusien mailan, 5 aldiz izan da finalista Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian, eta 2017an 3. gelditu zen. 2014an eta 2016an Iparraldeko Xilaba Bertsolari Xapelketa irabazi zuen.



C



ION CELESTINO

Broken Brothers Brass Band taldeko tronpeta-jolea.

Broken Brothers Brass Band 2006an Iruñean sortutako jazz musika-taldea da. New Orleaneko talde berrien soinua dute, funk, gospel eta jazz modernoa jorratzen baitituzte emanaldietan. 2012an atera zuten aurreneko diskoa, eta ondorengoak bi urtetik behin plazaratu dituzte. Euskal Herriko eta inguruko lurretako jaialdietan jo izan dute: Donostiako jazzaldian, Getxoko jazzaldian, Zaragozako Jazz al margen jaialdian, Iruñeko jazzaldian, Zornotzako Haizetara jaialdian...

DISKOGRAFIA:

The Life We Deserve (2012)
In The Mud! (2014)
Ildoa landuz (2016)
Txertaketa (2018).





Irakurri elkarrizketa eta kokatu galderak:

**Aukerak
(galderak):**

1. Zein izango dira edizio honetako berritasunak?
2. Euskaraldiari egin zaion kritika nagusietakoa rolak aukeratzeko nahasmena izan da, askok gaitasunarekin lotzen dituztelako. Nola konponduko duzue arazo hau?
3. Eta hemendik aurrera, zer? Baina egon, Arrate, bertsolaria zarenez, eman erantzuna bertsotan!
4. Bizi izaten ari garen pandemiak ekarri ahal dituen traben inguruan aurreikuspenik egin al duzue?
5. Bi urte joan diren honetan, atzera begira, nola baloratzen duzue 2018ko Euskaraldi hura?



Ikaslearentzako orriak



Mikel MZ.
de Trespuentes

Elkarrizketa

Arrate Illaro. Euskaraldiko koordinatzailea

“Oraingoan, kolektiboen arteko talde-lana azpimarratu nahi dugu”

a.

.....
.....?

Oro har, balorazioa positiboa da; hala izango ez balitz, ez ginateke bigarren edizioa prestatzen ariko. Hizkuntza-ohiturei buruzko gogoeta sakona egiteko balio izan zigun, baita euskaldun askok hainbat jarrera aldatzeko urratsak egiteko ere. Gainera, neurri handi batean, ez zen hausnarketa hutsean geratu: ikerketek diote Euskaraldiak iraun zuen 11 egunetan euskararen erabilera asko handitu zela, baina inportanteena da behin ariketa amaituta hazkunde horri eutsi ziotela, nolabait, hainbat tokitan. Halaber, lehenengo Euskaraldia prestatzeko herri-batzorde asko sortu ziren, eta horietako askok martxan segitzen dute egun. Labur esanda, baikor gaude, hasiera besterik ez dela dakigun arren.

b.

.....
.....?

Norbanakoen konpromisoaz gain, oraingo honetan kolektiboen arteko talde-lana azpimarratu nahi dugu. Horretarako, edozein entitatek (erakunde publiko, enpresa, gizarte-eragile, batzorde...) izena eman dezake Euskaraldian, eta Arigune bat osatu. Ariguneen bitartez, euskaraz eroso eta lasai mintzatzeko gune-sarea osatu nahi dugu, ohiko tokietan sorturiko eta pertsonak osaturiko eremuak. Batzuk Ahobizi izango dira, eta beste batzuk Belarriprest, baina toki horiek ariketarekiko babes soziala areagotuko dute, dudarik gabe. Gainera, gure asmoa da Ariguneek Euskaraldiaz harago irautea, eta hala jakinarazten ari gaitzaizkie izena ematen dutenei.

c.

.....
.....?

Itxialdia herri-batzordeak sortzen eta antolatzen ari zirenean heldu zitzaigun, eta pandemiak nabarmen atzeratu du prozesua. Hala ere, urrirako espero dugu zerrenda itxita edukitzea. Bestalde, egia da garai zailak direla, baina Euskaraldia ilusiorako bide ere izan daiteke, eta, agian, horixe behar dugu une honetan, hots, helburu pertsonalei heltzea.

d.

.....
.....?

Gure helburu komunikatibo nagusietako bat Ahobizi eta Belarriprest rolak gizaratzea da. Lehenengo edizioan ere saiatu ginen, baina oso kontzeptu berriak ziren, akaso, ekimena bera bezalaxe. Ordura arte, ohituegi geunden euskaldunok gaitasunaren arabera etiketatzea (badaki ala ez daki, ulertzen du ala ez...), eta Euskaraldiak funtzionatzeko beste modu bat ezarri zuen. Hala, Ahobizia ez da euskaraz ederto dakiena, baizik eta bere maila alde batera utzita dakiten guztiei euskaraz hitz egiten diena. Era berean, Belarriprestek aktiboki euskaraz egin diezaioten eskatzen du, nahiz eta gero berak erdaraz egitea erabaki. Beraz, euskaraz ongi moldatzen den pertsona Belarriprest izan daiteke, hala nahi duelako, bere bizitzako esparru guztietan ez duelako beti euskarari eusteko aukerarik ikusten, adibidez. Alderantziz, euskaltegiko ikasle batek Ahobizi izatea erabaki dezake, eta 15 egunez ariketa gehigarri hau egitea, bere burua gehiago astintzeko. Azken batean, rolek adierazten dute ariketa nola egiten ari garen, eta ez zer hizkuntza-gaitasun daukagun. Jokabidea da gakoa.

e.

.....
.....?

Askok euskaraz bizitze hori izaten dugu helburu. Baina oraindik hainbat zalantza, aurreiritzi, apuru. Euskaraldian, ta egunero, lortuko dugu seguru bakoitzak egin dezakeena egiten baldin badugu.



Ikaslearentzako orriak



EEK





Datak nola idatzi behar ditugu?


Aurtengo Euskaraldia noiz hasi eta amaitzen den idatziko dugu arbelean.
Noiztik noiz arte?

Ondo idatzita dago? Bai/ez. Zergatik?



Datak nola idazten diren lantzeko, zuzendu honakoak:

1. 1987ko urtarrilak 2a.
2. Martxoak 6tik nago hemen.
3. Urriak 5era arte.
4. Gasteizen, 2000ko otsailak 2an.
5. Gasteizen, 2020ko otsailak 2
6. 1995ko urtarrilaren 20a.
7. 1996eko urtarrilaren 20a.
8. Ekainaren 13tik 15ra kanpoan izango naiz.
9. Uztailaren 25ra arte zabalik dago izena emateko epea.
10. Apirilaren 11an hasiko da eta 30rean amaituko da.



Ikaslearentzako orriak



EEK



EUSKARALDIA



● Transkripzioak



Ezagutu Euskaraldiaren nondik norako guztiak bideoaren transkripzioa:

Udazken honetan, Euskaraldiaren 2. edizioa izango dugu. Azaroaren **20tik abenduaren 4ra bitartean**, milaka Belarriprestek eta Ahobizik hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala egingo dugu.

15 egunez, euskararen erabilera handitzeko asmoz, eguneroko inertzia astinduko ditugu. Duela 2 urte demostratu genuen bezala, uste baino jende gehiagorekin egin baitezakegu euskaraz.

Euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egin nahi dugun 16 urtetik gorako herritarrek hartuko dugu parte Euskaraldian.

Ariketa praktikoa denez, euskara ulertzeko gai izan behar dugu eta, ariketa egiteko moduaren arabera, ondorengo bi roletako bat aukeratuko dugu:

Ahobizi: ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dut uneoro. Kideek ulertzen ote duten ez dakidanean, lehen hitzak, beti, euskaraz egingo ditut. Ulertzen badute, hala jarraituko dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eutsiko diot kideek ulertzen dutenean.

Belarriprest: nire gaitasuna eta aukeren arabera erabakiko dut euskaraz noiz eta norekin egin. Baliteke ulertzen duten guztiekin beti euskaraz ez egitea, baina dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut eta horixe eskatuko diet modu esplizituan.

Aurtengoan, gainera, herritar askok, mota guztietako enpresa, kirol- eta kultura-elkarte, saltoki eta erakunde publikoetan osatzen ari diren Ariguneetan egingo dute ariketa. Herritarren ariketa erraztu eta babesteko, entitateek ere hartuko dute parte, beraz.

Aurtengo berrikuntza nagusia da Arigunea. Euskaraz lasai aritzeko gunea, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen da uneoro bertan, eta Arigunea osatzen duten kideak Ahobizi edo Belarriprest izango dira.

Ohiko taldeez gain, herritarrekiko harremanetarako kanpo-ariguneak ere izango dituzte entitateek.

Euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko, herritarrek Belarriprest edo Ahobizi giza emango dugu izena Euskaraldian.

Rola aukeratzean, jokaeran dago gakoa.

Euskaraldia 2020 kanta

24/7

Gehiago... **Gehiagorekin**... Gehiagotan.

Prest al zara? Esan, esan... esan esan

Prest al zara? Esan... bai!

Zaindu maite **duzun** hori... zaindu... zain gu... maite duzuna?

Armairutik atera armairua bera! Atera ba! Atera!

Bagera – ezer ez da berdin (e)ta segi aurrera

Bagare – ez da **erraza**, baina halere...

Bagira – ez geratu begira

Bagire – ez esan ez dela posible

Zenbat gara? Ni, bat

24/7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko (e)ta ez aski

Prest **bazara** esan, esan

Prest bazara esan

Prest bazara esan, esan

“Jalgi hadi plazara, jalgi hadi

Han bat eta han bi.

Hainbat... eta handi!

Jalgi hadi plazera, adi, adi

Batera... bat bera...”

Bagera – mugetan **preso** inor ez dadila gera

Bagare – aspaldi belarriak ahoen zain daude

Bagira – ahoak belarrien bila dira

Bagire – gorputz **txarrik** ez da bizitzeko libre

Zenbat gara? Ni, bat

24/7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko ta ez **aski**



Zuzenketak-orrriak



dek



Elkarrizketa: galderen hurrenkera

- 1-b.** Zein izango dira edizio honetako berritasunak?
- 2-d.** Euskaraldiari egin zaion kritika nagusietakoa rolak aukeratzeko nahasmena izan da, askok gaitasunarekin lotzen dituztelako. Nola konponduko duzue arazo hau?
- 3-e.** Eta hemendik aurrera, zer? Baina egon, Arrate, bertsolaria zarenez, eman erantzuna bertsotan!
- 4-c.** Bizi izaten ari garen pandemiak ekarri ahal dituen traben inguruan aurreikuspenik egin al duzue?
- 5-a.** Bi urte joan diren honetan, atzera begira, nola baloratzen duzue 2018ko Euskaraldi hura?

Datak

1. 1987ko urtarrilaren 2a.
2. Martxoaren 6tik nago hemen.
3. Urriaren 5era arte.
4. Gasteizen, 2000ko otsailaren 2an.
5. Gasteiz, 2000ko otsailaren 2a.
6. 1995eko urtarrilaren 2a.
7. 1996ko urtarrilaren 2a.
8. Ekainaren 13tik 15era kanpoan izango naiz.
9. Uztailaren 25era arte zabalik dago matrikula-epea.
10. Apirilaren 11n hasiko da eta 30ean amaituko da.